

HADE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

1. MAILA (B1)

Entzumena eta irakurmena

EREDUA: 13.1-1EI1

Deiturak: _____

Izena: _____ NA: _____

Azterketa honek **bi zati** izango ditu

Entzumena

Irakurmena

ARIKETA	Puntuazioa, gutxienez	Puntuazioa, gehienez	Proposatutako denbora
Entzumena	10	20 puntu	25 min inguru
Irakurmena	10	20	35 min inguru

Azterketa deialdia: **2013ko 1. deialdia**

ENTZUMENA

1. TESTUA

Ondoren, Euskadi Irratiko **Gertukoak** berri-saioa entzungo duzu. Guztira 5 berri entzungo dituzu. Berri bakoitza irudi batekin lotu behar duzu; beraz, hiru irudi sobera daude. Entzungaia **bi aldiz entzungo duzu**. Entzuten duzun bitartean, aukeratu erantzun zuzenak.

Erantzun zuzen bakoitzarekin puntu 1 lortuko da. Denera, 5 puntu.

<p>A </p> <p>C </p> <p>E </p> <p>G </p>	<p>B </p> <p>D </p> <p>F </p> <p>H </p>
--	--

Lotu berri bakoitza irudi batekin eta jar ezazu dagokion letra ondoko laukietan.

1	2	3	4	5

ENTZUMENA

2. TESTUA

Lapurreta baten kontakizuna entzungo duzu. Entzungaia **bi aldiz** entzungo duzu. Testuinguruan duten esanahia kontuan harturik, zenbakiekin markatuta dauden hutsuneetarako **hitz egokia** aukeratu behar duzu. **Testua eta aukerako hitzak irakurri**. Idatzi bakoitzari dagokion letra beheko laukietan. Erantzun zuzen bakoitzarekin 0,5 puntu lortuko dira. Denera, 5 puntu.

Lapurreta

Lapurretak direla eta, salaketa asko jaso ditu Ertzaintzak; _____ 1 _____ 2000 baino gehiago. Iazko datuekin konparatuko bagenu, diferentzia _____ 2 _____. Bi *Modus operandi* nagusi dituzte lapurrek: gaua denean edo inor ez dagoenean sartzen dira etxeetara.

Errenteriako emakume batek kontaktzen du, esnatzean, ez zirela konturatu lapurretaz, gauza guztiak _____ 3 _____ zeudelako. Geroago, beste batzuen artean, _____ 4 _____ eta autoaren giltzak falta zirela ohartzean, etxean sartu eta lapurtu zietela konturatu ziren. Autoa, dena dela, ez zuten eraman, zaharra delako. Lapurrak sartu zirenean, etxean _____ 5 _____ eta ez zuten ezer entzun. Telebista eta tramankulu handiak ez zituzten eraman, tresna hauek mugitzean _____ 6 _____. Lapurtzeko errazen zegoena hartu eta alde egin zuten.

Erdigunean dagoen sei etxebizitzako eraikinean bizi da, nahiz eta _____ 7 _____ hutsik dagoen. Hala ere, erdigunean egotea ez da ezeren garantia, azken aldi honetan lapurreta asko gertatu baitira _____ 8 _____. Etxeko atea ohikoa da. Gau hartan oheratu ziren _____ 9 _____ gabe eta lapurrak erraz sartu ziren etxera. Orain atea ondo itxi eta _____ 10 _____ ere hartu dituzte.

Aukerako hitzak

- a. urtean
b. hilean
c. 15 egunean
- a. handia litzateke
b. bikoiztuko litzateke
c. txikia litzateke
- a. hankaz gora
b. txukun-txukun
c. beren lekuan
- a. pisu gutxiko tresnak
b. balio handiko tresnak
c. tresna digitalak
- a. denak lo
b. denak drogatuta
c. umeak esnatuta
- a. zaratarik ez egiteko
b. pisurik ez hartzeko
c. ezer ez apurtzeko
- a. ondoko eraikina
b. hiru bat etxebizitza
c. etxebizitza bat
- a. inguruetan
b. atarian bertan
c. probintzia osoan
- a. sarrailari bi buelta man
b. leiho guztiak itxi
c. balkoia itxi
- a. defentsarako armak
b. beste neurri batzuk
c. kamerak

IDATZI ERANTZUNAK

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10

3. TESTUA

Jarraian Ana Castrori *Ele-alea* irrati-saioan egindako elkarrizketaren pasarte bat entzungo duzu. Entzungaia **bi aldiz** entzungo duzu. Adibidean egiten den bezala, elkarrizketan zer esaten den kontuan hartuta, **erantzun egokia** aukeratu behar duzu. Idatzi galdera bakoitzari dagokion letra beheko laukietan. Erantzun zuzen bakoitzarekin puntu 1 lortuko da. Denera, 10 puntu.

0. Nor da *Ele-alea* saioan gaurko gonbidatua?

- a) Telefonoaren bestaldean dagoen mutila.
- b) Eguneroko gonbidatua.
- c) **Ana Castro.**

1. Zer moduz dago Ana Castro elkarrizketa egin diotenean?

- a) Oso urduri, ohituta ez dagoen zeregin batean arituko delako.
- b) Ondo, nahiz eta erabat urduri egon AEKren izenean mintzatuko delako.
- c) Ondo, baina irratian aritzeak urduritu egin du.

2. Zergatik egin da ezaguna Ana Castro?

- a) AEKren matrikulazio kanpainarako kartela diseinatu duelako.
- b) AEKren matrikulazio kanpainaren irudietako bat bera delako.
- c) AEKren matrikulazio kanpainaren arduraduna delako.

3. Gustura dago matrikulazio kanpainarako erabilitako karteleko irudiarekin?

- a) Bai, behintzat jende askok esan dio ondo dagoela.
- b) Ez, jende askok kalean eta beste leku batzuetan begiratzen diolako.
- c) Tira, batez ere metroan dagoenean, lotsatuta dago ematen duen irudiarekin.

4. Zer nolako esperientzia izan da Anarentzat?

- a) Berria, inoiz modelo lanetan aritu bada ere.
- b) Halako lanetan sekula aritu ez denez, bizitzeko esperientzia izan da.
- c) Asko ikasi du, argazkilaritzan eta modelo lanetan duen esperientziak lagundu baitio.

5. Arrakastatsutat jo daiteke matrikulazio kanpaina, Anaren ustez?

- a) Bai, inguruko jende askok esaten diolako kartela ikusi duela.
- b) Neurri batean bakarrik, kartela ikusi ez delako prentsan.
- c) Inguruko lankideek ezetz uste badute ere, berak baietz uste du.

6. Zergatik jarri diote “Euskara bizia” leloa kanpainari?

- a) Euskara eta eguneroko bizitza lotuta daudela azpimarratu nahi izan delako.
- b) Euskarak lanean, baina batez ere, harremanetan duen garrantziagatik.
- c) Euskara ezagutu egin behar delako, kultura maila egokia izateko.

7. Zergatik aukeratu zuten Ana Castro kanpainarako?

- a) Ana, prentsa arduraduna denez, parte hartzea proposatu ziotelako.
- b) laz bezala, kartelean AEK-ko kideak eta irakasle bat agertzea nahi zutelako.
- c) Barakaldoko beste irakaslerik agertu ez zelako prest parte hartzeko.

8. Anaren ikasketak zirela eta, zergatik zeuden kezkatuta gurasoak?

- a) Ez zekitelako Anari noiz lagundu bere ikasketetan.
- b) Erdaldunak izatea oztopoa izan ahal zelako Anari laguntzeko orduan.
- c) Ikasketarik ez dutenez, beldur zirelako gai izango ziren Anari laguntzeko.

9. Zer eskertzen die Anak gurasoei?

- a) Bere ikasketa guztiak euskaraz egin ahal izateko eman dioten aukera.
- b) Unibertsitatean nahi zuena euskaraz ikasteko eman dioten aukera.
- c) Erretiroa hartzean, euskaltegian matrikulatuko direla.

10. Zeri buruz hitz egin du nagusiki Anak elkarrizketaren azken pasarte honetan?

- a) AEK-ko euskara arduradunaren publizitate kanpainari buruz eta kanpaina honen ondorioei buruz.
- b) Guraso erdaldun batzuek ahalegina eginda, nola lor dezaketen bere alaba publizitate kanpaina baten arduraduna izatea.
- c) Familia erdaldun batean jaio, baina ikasketak euskaraz burutu ahal izan dituen neska baten esperientziari buruz.

IDATZI ERANTZUNAK

0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
c										

IRAKURMENA

1. testua

Egitekoa

Irakur ezazu testua eta lotu kendutako esaldiak testuko hutsuneekin. Idatzi esaldien letrak laukietan, adibidean egiten den bezala.

Erantzun zuzen bakoitzarekin puntu 1 lortuko da. Denera, 6 puntu.

Ilargiaren soinekoa

Behin batean Ilargiak, amarengana hurbildu eta, 0:

- "Aizu, amatxo, soineko bat eduki nahi dut. Lurreko biztanleek erabiltzen dituztenak bezalako soineko bat eduki nahi dut".

- Ez duzu zuk haien soinekorik behar, laztana, eder-
ederra zara zaren modukoa.

- Bai ama - erantzun zion Ilargiak -, baina horrela biluzik sentitzen naiz eta beldur naiz ez ote didaten Lurreko biztanleek barre egiten.

- "Ongi da, alabatxo -erantzun zion amak- Zoaz jostunarengana eta esaiozu neurriak hartzeko. Esaiozu, 1, eta duen zilarrezko haririk luzeenak erabiltzen baditu, 1000 txapon emango dizkiodala".

Joan zen, bada, Ilargia jostunaren etxera. Jostuna ospetsua zen han, hainbat izarrentzat egin zituelako argi asko zituzten jantziak, guztiak politak eta dotoreak. Jostunak neurriak hartu zizkion eta handik bost egunera itzultzeko eskatu zion. Bost egun igaro ziren eta han joan zen Ilargia jostunaren etxera lasterka bizian eta alai. 2 laburregi eta estuegi zeukan.

- "Dirudienez, erratu egin naiz", pentsatu zuen jostunak bere barrurako, eta neurriak hartu zizkion berriro.

- "3"- esan zion Ilargiari.

Ilargia astea pasatuta, jostunaren etxera joan zen eta berriro ere soinekoa janzen saiatu zen. Oraingo honetan ere laburregi eta estuegi zeukan.

- "Gure ama haserretuko da- esan zion Ilargiak- hamabi egun eman dizkizu jantzi bat egin diezadazun, eta oraindik ez dut ezer".

- Esaiozu amari errua zurea dela, handitzen eta loditzen zarela etengabe. 4. Bestela, orain hartuko dizkizudan neurriek ere ez dute balio izango.

Jostunak, berriz ere, neurriak hartu zizkion. Hamar egun haiek igaro ziren, gosearen gosez ilargiarentzat. Jostunak soinekoa amaitu zuen, baina Ilargia bere etxera sartzen ikusi zuenean... ez zuen jantzi beharrik izan: bazekien ez zuela ondo edukiko, 5. Jostuna etsita zegoen erabat:

- "Ezin dizut soinekorik egin, Ilargi, 6. Neurri asko hartu arren, inoiz ez duzu soinekoa ondo edukiko. Esaiozu amari ez naizela gauza zuri soinekoa egiteko".

Horrexegatik geratu zen Ilargia soinekorik gabe eta horrexegatik dago oraindik ere biluzik.



(<http://www.teatro-testuak.com/ipuinak>. Testu moldatua)

1. testua

Egitekoa

Lotu esaldi bakoitza dagokion hutsunearekin, adibidean bezala. Esaldi bi sobera daude.

- a) **hauxe esan zion**
- b) baina neukan soinekoa apurtu egin zait eta berri bat beharko nuke
- c) esaiozu hurrengo 10 egunetan ez dizula ezer jaten eman behar
- d) itzuli zazpi egun barru
- e) lanak bukatutakoan
- f) orain laurdena, gero erdia eta ondoren osoa zaudelako
- g) oraindik ere gehiago ludituko zarela
- h) soinekoa janzten hasi zen, baina ezin zuen sartu
- i) une hartan Ilargia gazta bezain biribila baitzen

Idatzi dagokion letra ondoko laukietan.

Adibidea: 0 = a

Hutsuneak	0	1	2	3	4	5	6
Galderak	a						

IRAKURMENA

2. testua

Egitekoa

Irakurri testua eta, testuan esaten dena kontuan izanda, aukeratu erantzun zuzena. Erantzun zuzen bakoitzarekin puntu 2 lortuko da. Denera, 10 puntu.

Leku publikoetan erretzea

Duela egun batzuk irakurritako albistea oso interesgarria iruditu zitzaidan, azken urte hauetan gai honi buruz asko hitz egin da-eta. Albistea Irlandan ezarritako debeku bati buruzkoa zen, leku publiko guztietan erretzea debekatu baitute, zenbait kaletan ere bai, “guztion osasunerako” osasun ministroak esandakoaren arabera. Irlandan bazeuden honi buruzko legeak, baina oraingo hauek zorrotzagoak izatea erabaki dute. Nik uste dut hemen ere horrela jokatu beharko genukeela.

Erretzea ez da batere osasungarria. Erre nahi ez dugunok ez daukagu zertan besteen kea irentsi; alegia, erretzaileek ez daukate eskubiderik bestean birikak kutsatzeko. Asmatikoak garenok, adibidez, ezin gara horrelako leku ketuetan denbora luzez egon, osasunean benetako “sarraskia” egin ahal digulako. Baina guri ez ezik, jende gehienari ere egiten dio kalte keak (medikuek esaten dutenez, hainbat gaixotasunen oinarria delako; esate baterako, biriketako minbizia). Hau guztia frogatuta dago eta adibiderik argienetako bat Irlanda bera omen da, herri honetan Europako beste edozeinetan baino gehiago hiltzen baitira, ehunekotan hitz eginda.

Bestalde, aipatu beharra da keak sortzen duen giro eskasa. Ez gara inoiz modu berean egongo erretzea debekatuta dagoen leku batean eta kea nonahi dagoen beste batean. Bi adibide soil baino ez ditut aipatu nahi (noiz edo noiz guztiok pairatu ditugunak): nori ez zaizkio begiak gorritu horrelako pub edo taberna batean egon denean? nor ez da atera taberna horretatik bi orduz dantzan egon beharrean, negarrez egon denaren begiekin? Seguru nago begien kontrako horrelako erasoak ezin direla onak izan.

Usaina ere aipatu nahiko nuke; guztiz desatsegina da eta arropetan itsatsi ohi dena, perfumerik preziatuena izango balitz bezala. Erretzen den lekuetan zertarako bota lurrina? Hori bai modu tentela dirua alferrik galtzeko.

Laburbilduz, nik ez dut esaten erretzaileek erretzeari utzi behar diotenik, bakoitza bere bizitzaren jaun eta jabe baita. Nik eskatzen dudana da erretzaileek bestean bizitza errespetatzea, ez erretzea erabaki dugula, ez dugula erre nahi ulertzea.

<http://astronautak.ikasblog.net> (moldataua)

2. testua

Aukera ezazu erantzun egokia eta idatzi erantzuna beheko laukietan.

1. Zer aldaketa ekarri dituzte neurri berriek?
 - a. Osasun ministroak dioenez, guztion osasunaren hobekuntza.
 - b. Zorrotzagoa izango da legea, nahiz eta edozein kaletan erre ahal izango den.
 - c. Ez du aldaketarik ekarriko, nahiz eta zenbait kaletan ezin izango den erre.
2. Zer jarrera du idazleak Irlandako lege berri honen aurrean?
 - a. Erabat ados dago, nahiz eta oraingo neurriak zorrotzagoak ez diren.
 - b. Ados dago, Irlandan erretzearen kontrako neurriak gogortu dituztelako.
 - c. Uste du hemen ere jarrera aldatu beharko litzatekeela, nahiz eta legeak ez aldatu.
3. Zer aurpegiatzen die idazleak erretzaileei?
 - a. Ez erretzaileen, eta oro har, guztion osasunari kalte egiteko eskubiderik ez dutela.
 - b. Asmatikoak direnak ezin direla tabernetara sartu, sarraskia sortu ahal dutelako.
 - c. Guztiok, eta batez ere asmatikoek, bestean birikak kutsatzeko eskubiderik ez dutela.
4. Zergatik da hain arriskutsua kea, medikuen esanetan?
 - a. Oinarrizkoa delako birikietako minbizia nola sortzen den ulertzeko.
 - b. Gaixotasun askoren faktore nagusietako bat delako.
 - c. Keak gehienoi minbizia sortzen digulako.
5. Zein da idazleak azpimarratu nahi duen ideia nagusia testuan zehar?
 - a) Guztiok dugula nahi duguna egiteko askatasuna, bestean erabakia errespetatuz gero.
 - b) Erretzaileok erretzeari utziko baliote, guztion osasuna hobea izango litzatekeela.
 - c) Irlandan hartutako neurriak, zorionez, hemen ere jarriko direla.

IDATZI ERANTZUNAK

1.	2.	3.	4.	5.

IRAKURMENA

3. testua

Egitekoa

Irakurri testua eta, testuan esaten dena kontuan izanda, aukeratu erantzun zuzena. Erantzun zuzen bakoitzarekin 2 puntu lortuko dira. Denera, 4 puntu.

Heroia izan nahiko nuke

Heroia. Esanahi ugariko hitza. Izaki kementsua, ausarta, adoretsua. Gizakia batzuetan, pertsonaia mitologikoa; besteetan, film, liburu eta komiki askoren protagonista...



Nork ez luke heroia izan nahi bizitzan behin? Nork ez du bere gogoko heroia edo nork ez du inoiz izan? Ia mundu guztiak esango nuke.

(euskerabili.blogspot.com. Testu moldatua)

Hona hemen galdera honi emandako bi erantzun.

1)

Arantzak dio:

Txikitan, denok izan nahi izan genuen gure komikietan agertzen ziren heroiak. Gero, urte batzuk geroago, gure buruan dauden heroiak aldatzen dira eta heroi berriak sortzen ditugu. Gure heroi berriak gizartearentzat lan onak egiten dituztenak dira. Jende mota hori, batzuetan, telebistan agertzen da eta ikustean, haiek bezalakoak izan nahi dut, gure gizartea hobetu nahi dudalako.

Batman edo Superman izatea ezinezkoa da, baina uste dut guztiok nahi dugula gogoratuak izatea etorkizunean zerbait garrantzitsu egin dugulako.

Zein da Arantzak adierazi nahi duen ideia nagusia?

- A. Gure bizitzan zehar, gure heroiak gizarteari on egitea dute helburu, modu batean ala bestean, helburuak aldatzen diren arren.
- B. Heroi mota bat baino gehiago dago eta, txikitan, gizartearentzat lan onak egiten dituzten Batman edo Superman izan nahi dugu guztiok.
- C. Etorkizunean gogoratuak izatea da guztion desioa. Berdin dio horretarako zer heroi mota hartzen dugun eredutzat: gizarteari lagundu nahi diona ala nahi ez diona.

2)

Albertok dio:

Egia da filmetan heroiak beti indartsuak, politak, ausartak eta kementsuak direla eta, noski, nork ez luke horrelakoa izan nahiko? Gainera, beti zorte ona izaten dute eta dena oso ondo ateratzen zaie.

Oro har, fikziozko heroiak gustatu ez arren, noizean behin heroiaren abentura liburuak irakurtzen ditut. Filmak berriz, ez zaizkit gustatzen, nahiko aspergarriak iruditzen baitzaizkit.

Esango nuke gizarte honetan, neurri handi batean behintzat, heroiak behar ditugula, gu babesteko eta laguntzeko. Eta nik... bai, heroia izan nahiko nuke!

Zein da Albertok adierazi nahi duen ideia nagusia?

- A. Bera, batez ere, heroiak gustuko ez dituenek, ez litzateke inolaz ere heroia izango, nahiz eta politak, ausartak eta kementsuak diren.
- B. Oro har, heroizalea ez bada ere, filmetan eta liburuetan agertzen diren heroiak, nolabait, beharrezko ditugu gure gizartean.
- C. Liburuetan agertzen diren heroiak filmetan agertzen direnak bezain politak, ausartak eta kementsuak direnez, heroia izan nahiko luke.

3. testua

Idatzi dagokion letra ondoko laukietan.

1.	2.